

HIRU URTE LAN HITZARMENIK GABE

Eusko Legebiltzarrean Hezkuntza Legeaz aritu garen/diren tarte luzean, 2021az geroztik **Lan Hitzarmenik gabe gaude** ikastoletako langileok.

Jaurlaritzara ate joka hasi eta han ezetz, ez direla gure enplegatzaileak eta Partaidera (Ikastolen Elkartera) jotzeko adierazten digute. Partaiden galdegin eta, Hezkuntza Sailak finantziazioa ez badu igotzen, ezin omen da ezer negoziatu. Egoera berezia da gurea, Jaurlaritza ez da gure nagusia, baina bere Hezkuntza Sailak ordaintzen dizkigu soldatak zuzenean.

Bitartean, **bizitza ikaragarri garestitu da, soldatak, Lan Hitzarmenik gabe, ez bezala** (zuetako asko antzetsu, ez?). Azken urteetako KPIaren bilakaera honako hau izan da: 2021ean %6,4, 2022an %5,4 eta 2023an , momentuz, %3,5. Bitartean gure soldaten gorakadak ez du bide bera egin: 2021ean %1,4, 2022an %1,5 eta 2023an %2,5 eta orain beste %0,5.

Hezkuntza Legearen harira kuotak zalantzan jarri dira, baina homologazioaz hitz egiten da: gurea bezalako itundutako ikastetxetan gabiltzanek eta administraziopeko eskolakoek pareko baldintzak izango ditugula diote.

Nola, ordea?

Jaurlaritzatik sarrera gehiagorik gabe, familiei ezin diegu esfortzu handiagoa eskatu.

Eta, diru kontuez gain, nola jarri eskola **nazio proiektu** bati begira, Iparralderi eta Nafarroari begira, EAEn ereduak gaindituko dituen legea egitera ausartzen ez direnean?

Gure begirada non dugun oso garbi dugu, baina egunerokoan **lan karga** gehiago ditugu, **lan baldintzak kaskartu dizkigute, eros-ahalmena galdu dugu...**

Makina bat irakasle-gai guregana dator formatzera, etorkizuneko irakasleek gure proiektua ezagutzeko tenore ezin hobea, baina lanean hasterakoan, eskolako lan baldintzetatik hain urrun gaude, **ordezkoetarako irakasleak** aurkitzea ere zaila, oso zaila, gertatzen ari zaigula azken urte hauetan.

Baldintza ezkorrak bai, kemena baikorra dugu, ordea. Hori dela eta, gure **egoera aldatzea bideratuko luketen ekimenen hasieran** kokatu nahian gabiltza. Eta lehenik eta behin, agiri honen bitartez, informazio hau guztia helaraztea erabaki dugu gure bidaia honetan bidaikide zaitugunari.